

# LABO2013

**Film labur esperimentalak**
Cortometrajes experimentales

# + KIMUAK2012

**ANTZOKI ZAHARRA** TEATRO PRINCIPAL
**Otsailak 25 Febrero • Martxoak 2 Marzo**

**DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN**

# LABO 2013 (+ KIMUAK 2012)

Aurten ere Donostian izango ditugu **Clermont-Ferrand Nazioarteko Zinemaldiko film labur esperimentalak**. Azken urtean egindako 30 film labur harrigarri, arriskatu eta ezberdinek osatzen dute aurtengo Labo saila. Gainera, Labori ongietorria emateko, otsailaren 25ean **Kimuak** programako 2012ko hautaketa osatzen duten zazpi film laburrak proiektatuko dira.

**Noiz?**

**Kimuak:** astelehena, otsailak 25

**Labo2013:** otsailak 26 eta 28 (asteartea eta osteguna) eta martxoak 1 eta 2 (ostirala eta larunbata).

19:30etan

**Non?**

Antzoki Zaharrean

**Sarrera:** 2 euro

Film labur guztiak jatorrizko bertsioan eskainiko dira, azpitituluekin; astelehen, astearte eta larunbatean, gaztelaniaz; ostegun eta ostiralean, euskaraz.

Vuelven a San Sebastián los **cortometrajes experimentales del Festival Internacional Clermont-Ferrand.** 30 cortometrajes sorprendentes, arriesgados y diferentes componen la sección Labo de esta última edición. Este año, además, las proyecciones de Labo vienen precedidas por la proyección, el 25 de febrero, de los siete cortometrajes seleccionados en 2012 por el programa **Kimuak**.

**¿Cuándo?**

**Kimuak:** lunes, 25 de febrero

**Labo2013:** 26 y 28 de febrero (martes y jueves) y 1 y 2 de marzo (viernes y sábado).

A las 19:30

**¿Dónde?**

En el Teatro Principal

**Entrada:** 2 euros

Todos los cortos se proyectarán en versión original subtitulada: el lunes, martes y sábado, en castellano; el jueves y viernes, en euskera.

# EL CINE SOY OTRO

**Zinema, sorkuntza eta egiletza ikus-entzunezko garaikidean**

Zinema jada ez da garai batean izan zena, zinema gaur egun telefono mugikor baten pantailan kabitzen da, zeroen eta batekoen batuketa besterik ez da. Zein da orduan zinegilearen papera ikus-entzunezko garaikidean?

Zinema tradizionaletik digitalerako jauziak zinegilearen irudia birdefinitzera behartzen gaitu eta honek munduarekin eta esku artean darabiltzan materialekin zein harreman duen geure buruari galdetzera.

Tailer honen helburua, ikuspegi praktiko zein emozional batetik irudietara gerturatuz, parte hartzaileei auto-ezagutzarako beharrezko dituzten tresnak helaraztea da, zinemaren bitartez nortasun artistiko bat eraiki ahal izan dezaten.

Tailerra doakoa da eta zinema digitalean eta autobiografikoan interesa duten pertsonei zuzendurik dago. Izena emateko, bidali email bat CV labur batekin eta motibazio gutunarekin **proiektuak@tabakalera.eu** helbidera, **otsailaren 21a** baino lehen.

## Andrés Duque

Andrés Duque zinegile espainiar-venezuelarra da. Zinema irakaslea da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta Pompeu Fabra Unibertsitatean. Bere lanik ezagunena *Ivan Z* da, Ivan Zulueta zinegile donostiarraren erretratua. Lan horregatik Espainiako Academiaren Goya sarirako izendapena jaso zuen. 2011. urtean lehen film luzea egin zuen: *Color perro que huye*. Rotterdameko Nazioarteko Zinemaldian aurkeztu zuen filma eta Iruñako Punto de Vista Zinemaldian publikoaren saria irabazi zuen. 2012. urtean bigarren film luzea aurkeztu zuen, *Ensayo final para utopía*.

**Otsailaren 25etik martxoaren 1era**
Del 25 de febrero al 1 de marzo

**Ordutegia** Horario: **10:00-14:00**

**Partaideak** Participantes: **10-15**

**Lekua** Lugar: **Larrotxene Kultur Etxea**

# EL CINE SOY OTRO

**Cine, creación y autoría en el audiovisual digital**

Ahora que el cine ya no es lo que era, ahora que el cine cabe en la pantalla de un teléfono móvil, ahora que el cine es una suma de ceros y de unos, ¿cuál es el rol del cineasta en el audiovisual contemporáneo?

El paso del cine tradicional al cine digital nos obliga a redefinir la figura del cineasta autor y a preguntarnos sobre su relación con el mundo y con los materiales con los que trabaja.

El taller propone un acercamiento práctico y emocional a las imágenes con el fin de que los participantes adquieran las herramientas necesarias de auto-conocimiento para construir una identidad artística a través del cine.

El taller es gratuito y está dirigido a personas interesadas en el cine digital y autobiográfico. Para participar, manda un email con un breve CV y una carta de motivación a la dirección **proiektuak@tabakalera.eu** antes del **21 de febrero**.

## Andrés Duque

Andrés Duque es un cineasta hispano-venezolano. Es profesor de cine en la Universidad Autónoma de Barcelona y la Universidad Pompeu Fabra. Su trabajo más conocido es *Ivan Z*, un retrato del cineasta donostiarra Iván Zulueta que le valió una nominación a los premios Goya de la Academia. En 2011 realiza su primer largometraje, *Color perro que huye*, estrenado en el Festival International de Cine de Rotterdam y que obtuvo el premio del público en el Festival Internacional de Cine Punto de Vista de Pamplona. En 2012 estrenó su segundo largometraje, *Ensayo final para utopía*.

# PROIEKZIOEN EGITARAUA
# PROGRAMA DE PROYECCIONES

KI
MU
AK

***Euskadiko Film Laburrak***
*Selección de Cortometrajes Vascos*
*Selection of Basque Short Films*

# AGUA!

## Mikel Rueda

Fikzioa Ficción
15’10



Guillek eta Alexek ez dute elkar ezagutzen. Bakoitza bere modura bizi da. Erakutsi dieten bezala. Hezi dituzten moduan. Eta itxuraz bien artean mundu gaindiezin bat dagoela dirudien arren, bada biak batzen dituen zerbait: igerilari amorratuak dira. Eta gaur... norgehiagoka bat dute.

Guille y Alex no se conocen. Viven cada uno su vida a su manera. Tal y como les han enseñado. Tal y como les han educado. Y aunque en apariencia hay un mundo insalvable entre ambos, hay algo que les une. Su pasión por la natación. Y hoy... tienen competición.

# BAJO LA ALMOHADA

## Isabel Herguera

Animazioa Animación
08’25



Indiako klinika batean bizi den ume talde baten ahotsekin eta marrazkiekin egindako animaziozko dokumentala. Haurrok hainbat altxor eta amets dauzkate gorderik burko azpian: gitarra, dantzak, itsasora egindako txango bat, Sweety eta Kitty katuak, edota haiek zaintzen dituzten ahizpak.

Documental de animación realizado a partir de los dibujos y voces de un grupo de niños residentes en una clínica en la India. La guitarra, los bailes, una excursión al mar, los gatos Sweety y Kitty y las hermanas que los cuidan son entre otros algunos de los tesoros y sueños que los niños guardan bajo la almohada.

## BEERBUG

### Ander Mendia

Animazioa Animación
07’43



Joek errepide ertzeko gasolindegi batean lan egiten du. Egun batez, garagardo bat hartzeko atseden hartzea erabakiko du. Edariaz gozatzeko ahaleginak huts egingo dio, norbait lapurretan ari baitzaio muturraren aurrean.

Joe regenta una vieja gasolinera al borde de la carretera, cuando decide tomarse un descanso para beber una cerveza. Sus esfuerzos en disfrutar de su bebida fracasan porque alguien le está robando en sus narices.

## CASA VACÍA

### Jesús Mª Palacios

Dokumentala Documental
20’30



Jorge Oteiza eta Néstor Basterretxea artistak 1957tik 70. hamarkadaren erdialdera bitartean bizi izan ziren etxearen hondarretan zehar eginiko ibilbidea da **Casa vacía**. Leku ilun eta huts hau esploratu bitartean, gaur egungo irudien eta iraganeko materialen artean elkarrizketa sortuko da.

**Casa vacía** es un recorrido por las ruinas de la casa de Irún en la que vivieron los artistas Jorge Oteiza y Néstor Basterretxea entre el año 1957 y mediados de los 70. Mientras exploramos este espacio oscuro y vacío se establece un diálogo entre las imágenes del presente y los materiales del pasado.

KIMUAK

## DEUS ET MACHINA

### Koldo Almandoz

Fikzioa Ficción
08’30



Langilea egunero joaten da fabrikara lanera. Eginbehar zehatz bat egin dezakeen langile bakarra da. Egunero makinak pizteko zeremoniari ekin, eta bere lan zehatz eta monotonoari helduko dio. Gaur, ordea, erabaki bat hartu du...

El trabajador acude todos los días a la fábrica. Es el único capacitado para hacer el trabajo concreto que realiza. Un curro preciso, rutinario y repetitivo. Cada mañana la misma ceremonia, la puesta en marcha de cada máquina. Pero hoy ha tomado una decisión...

## MONSTERS DO NOT EXIST

### Paul Urkijo

Fikzioa Ficción
09’22



Nai Kanbodiako Phnom Penh hirian bizi den mutiko bat da. Azkenaldian Yeak munstroarekin amesgaiztoak ditu. Yeak *khmer* tradizioko munstro bat da, gaizki portatzen diren umeak jaten dituena. Ikastetxeko ingeles irakasleak, Michaelek, munstroak ez direla existitzen esaten dio, haurrentzako ipuinak baino ez direla. Baina egia oso bestelakoa da.

Nai es un niño que vive en Phnom Penh (Camboya). Últimamente está teniendo pesadillas con el Yeak, un monstruo de la tradición *khmer* que se come a los niños que se portan mal. Michael, su profesor de inglés en la escuela, le dice que los monstruos no existen, que son cuentos de niños. Pero la verdad es muy diferente.

KIMUAK

# VOICE OVER

**Martín Rosete**

Fikzioa Ficción
09’40



Esango-ez-dizudan-norbaiten ahotsak muturreko hiru egoera kontatzen ditu; finean egoera bakarra osatzen dutenak. Iraungo al duzu birizik?

La voz de no-te-digo-quién narra tres situaciones límite que en realidad son una misma. ¿Sobrevivirás?

# LABO2013

**Film labur esperimentalak**

Cortometrajes experimentales

## FESTIVAL INTERNATIONAL DU COURT-MÉTRAGE CLERMONT-FERRAND

Sauve qui peut le court métrage

**Sarituak** Palmarés

**2013an Clermont-Ferrand Zinemaldian saritutako Labo saileko filmak**

Cortos de la sección Labo premiados en el Festival Clermont-Ferrand en 2013

Sauve qui peut le court métrage

## SARI NAGUSIA ETA IKUSLEEN SARIA
## GRAN PREMIO Y PREMIO DEL PÚBLICO

**A Story for the Modlins**
Sergio Oksman, Espainia España

**Proiekzioa Proyección:**
LAB02: Osteguna, otsailak 28
Jueves, 28 de febrero

## CANAL+ SARIA
## PREMIO CANAL+

**Rauch und Spiegel**
Nick Moore, Australia

**Proiekzioa Proyección:**
LAB02: Osteguna, otsailak 28
Jueves, 28 de febrero

## EPAIMAHAIAREN SARI BEREZIA
## PREMIO ESPECIAL DEL JURADO

**Sizígia**
Luis Urbano, Portugal

**Proiekzioa Proyección:**
LAB04: Larunbata, martxoak 2
Sábado, 2 de marzo

## EPAIMAHAIAREN AIPAMENA
## MENCIÓN DEL JURADO

**Lady and the tooth**
Shaun Clark, Erresuma Batua
Reino Unido

**Proiekzioa Proyección:**
LAB01: Asteartea, otsailak 26
Martes, 26 de febrero

## THE GREAT RABBIT

**Atsushi Wada**

Frantzia Francia / 2012
Animazioa Animación / 07’00



Garai batean gure izate noble, sakon eta misteriotsua “The Great” gisa izendatu genuen. Geroztik, aldatu egin gara denboraren poderioz eta gure usteak eta kontzientzia aldatu egin dira. Beraz, zergatik jarraitzen dugu gure izatea “The Great” gisa izendatzen?

En un tiempo admitimos que nuestra noble, profunda y misteriosa existencia pudiese ser llamada “The Great”. Desde entonces, hemos evolucionado con el tiempo y nuestros pensamientos y conciencia han cambiado. Sin embargo, ¿qué nos hace seguir considerando a nuestra existencia como “The Great”?

## JUST ANCIENT LOOPS

**Bill Morrison**

AEB EEUU / 2012
Esperimentala Experimental / 25’25



Zeruaren hainbat ikuspegi, antzinako nitratozko filmen erresoluzio altuko irudiak eta berriki ordenagailu bidez sortutako irudiak konbinatuta sortuak.

Diferentes vistas del cielo, a través de imágenes en alta resolución de antiguas películas de nitrato combinadas con imágenes creadas por ordenador.

# LADY AND THE TOOTH*

**Shaun Clark**

Erresuma Batua Reino Unido / 2012
Animazioa Animación / 07’50



Sozialki ondasunik baliotsuena hortzak direnean, modu bakarra dago maitasuna konkistatzeko.

Cuando el bien socialmente más valorado son los dientes, existe una sola manera de conquistar el amor.

# THE RIVER

**Tarquin Netherway**

Australia / 2012
Esperimentala Experimental / 13’00



Bada errekasto txiki bat auzo lasai baten azpitik pasatzen dena. Auzo horretan telebista ikusten da, gobada egin, paseatu, igeri egin, paseatu, telebista ikusi, estralurtarrak daude, telebista ikusten da, telebista ikusten da, eta urak bere bidean jarraitzen du.

Hay un pequeño riachuelo que fluye justo por debajo de un tranquilo barrio. En ese barrio se ve la tele, se hace la colada, se pasea, se nada, se pasea, se ve la tele, hay extraterrestres, se ve la tele, se ve la tele y el agua fluye.

*Epaimahaiaren aipamena
Mención del jurado

# VELOCITY

## Karolina Glusiec

Erresuma Batua Reino Unido
2012 / Animazio dokumentala
Animación documental / 06’00



Beti pentsatu izan dut memoria perfektua dudala. Marrazki hauek erakutsi nahi nizkizun.

Siempre he pensado que tenía una memoria perfecta. Quería enseñarte estos dibujos.

# PIATTAFORMA LUNA

## Yuri Ancarani

Italia / 2011
Dokumentala Documental / 25’00



Ur sakonetako lanetan espezializatutako 6 urpekariko taldea hiru astez biziko da ozeanoaren hondoan, Luna plataformako lanak zuzentzen.

Un grupo de seis buceadores especializados en operaciones en aguas profundas, vive durante tres semanas en el fondo del océano, llevando a cabo los trabajos en la plataforma Luna.

# REALITY 2.0

## Victor Orozco Ramirez

Mexiko / Alemania México / Alemania
2012 / Animazio dokumentala
Animación documental / 11’00



Udazkenean iritsi nintzen Alemaniara. Pentsatu nuen herrialde exotiko hark nire burua Mexikotik urruntzen lagunduko zidala, baina oker nengoen. Droga trafikatzaileek berehala bidali ninduten atzera Mexikora.

Era otoño cuando llegué a Alemania. Pensé que en aquel exótico país podría distanciarme un poco de México, pero me equivoqué. Los traficantes de drogas me enviaron rápidamente de vuelta a México.

## RAUCH UND SPIEGEL*

### Nick Moore

Australia / 2012
Esperimentala Experimental / 05’54



Trapezio ariketa bat oholtzako trikimailu, musika kaxako panpina eta zaldiko-maldiko liluragarri bilakatzen da. Abrakadabrak eta ikuskizunak aurkituko ditugu zinemak eta zirkuak bat egiten duten lekuan.

Un número de trapecio es transformado en truco de escenario, en muñeco de caja de música y en un carrusel hipnotizante. Abracadabra y espectáculo se encuentran donde se juntan el cine y el circo.

*Canal+ saria
Premio Canal+

## A STORY FOR THE MODLINS*

### Sergio Oksman

Espainia España / 2012
Dokumentala Documental / 26’00



‘Rosemary’s Baby’ filmean agertu ostean, Elmer Modlinek urruneko herrialde batera alde egin zuen bere familiarekin eta bere burua giltzapetu zuen hogeita hamar urtez apartamentu ilun batean.

Tras aparecer en la película ‘La semilla del diablo’, Elmer Modlin voló junto con su familia a un lejano país y se encerró durante treinta años en un oscuro apartamento.

*Sari nagusia eta ikusleen saria
Gran premio y premio del público

# MY FACE IS IN SPACE

## Thomas Jobbins

Erresuma Batua Reino Unido / 2012
Animazioa Animación / 09'00



1977an NASAk urrezko disko bat bidali zuen espaziora. Bertan gizateriaren lorpen garrantzitsuenetakoak eta zenbait aurpegi atsegin zeuden gordeta. Larryrena da horietako bat. Hori dela eta bere burua Lurreko enbaxadoretzat du.

En 1977 la NASA envió al espacio un disco de oro que llevaba grabados algunos de los logros más importantes de la humanidad, así como algunas caras simpáticas. Una de ellas es la de Larry, que se ve a sí mismo como embajador de la Tierra.

# MALODY

## Phillip Barker

Kanada Canadá / 2012
Esperimentala Experimental / 12'10



Kafetegi bateko lasaitasunean, barran eserita dago gaixorik dagoen emakume gazte bat. Bere ingurua geroz eta ezegonkorragoa bilakatzen da. Jarraian datorren kaosak bere mundua hankaz gora jartzen du eta zoritxarreko gertaerak sorrarazten ditu.

En la quietud de una cafetería, una joven mujer enferma está sentada en el mostrador. A su alrededor todo se vuelve cada vez más inestable. Mientras su universo se vuelve patas arriba, el consiguiente caos desencadena acontecimientos inquietantes.

## BITE OF THE TAIL

**Song E Kim**

AEB EEUU / 2012
Animazioa / Fikzioa
Animación / Ficción / 09'00



Sabeleko minez dagoen emakume batek sendagileak senda dezakeela uste du, baina azken honek arrastorik ere ez du. Bere senarra, erlezainen maskara jantzita, suge bat harrapatzera joango da hutsik dagoen enbor batera.

Una mujer que sufre dolor de estómago piensa que el doctor la puede curar, pero este no tiene ni idea. Su marido, vistiendo una máscara de apicultor, va a cazar una serpiente en un tronco hueco.

## THE GIANT

**David Raboy**

AEB EEUU / 2012
Fikzioa Ficción / 20'35



Bi egun barru 17 urteko Charlottek agur esango dio Georgiako bere herri txikiari eta bizitza berri bati ekingo dio beste leku batean. Baina gaur, udako azken gauean, urtaro itogarri honetako trauma zapalduei aurre egin beharko die. Eta, behar bada, gauza makurragoren bati ere bai.

Dentro de dos días, Charlotte, de 17 años, dirá adios a su pequeño pueblo de Georgia para comenzar una nueva vida en otro lugar. Pero esta noche, la última del verano, tendrá que enfrentarse a los traumas reprimidos de esta estación sofocante y, a lo mejor, a algo todavía más siniestro.

# PLUG & PLAY

**Michael Frei**

Suitza Suiza / 2012
Animazioa Animación / 06’00



Entxufe-burua duten figurak elkar konektatzen ari dira hatzek zuzentzen duten mundu batean. Baina hatzak eurak ere ukitu eta ukitu ari dira. Maitasuna al da?

Figuras con cabeza de enchufe son enchufadas las unas con las otras en un mundo dirigido por dedos. Pero los dedos también están toqueteando. ¿Es amor?

# SOLIPSIST

**Andrew Huang**

AEB EEUU / 2012
Animazioa Animación / 10’09



Eurek uste zuten mundu arraro honetako izaki erreal bakarrak zirela...

Una fantasía psicodélica sobre seres de otro mundo cuyas mentes y cuerpos convergen.

## ROSSIGNOLS EN DÉCEMBRE

### Theodore Ushev

Kanada Canadá / 2011
Animazioa Animación / 03’00



Ipuin metaforiko surrealista hau zeharkako aipamen bat da, ikuslea eramaten du aldi berean talde-memoriara eta egungo errealitatera. Eta urretxindorrek abestu eta hegoalderantz hegan egin ordez gogor lan egingo balute, zer?

Este cuento surrealista metafórico es una alusión, un viaje que nos transporta al mismo tiempo a la memoria colectiva y a la realidad actual. ¿Y si los ruiseñores trabajaran duro en lugar de cantar y volar hacia el sur?

## CHIENS

### Caroline Poggi

Frantzia Francia / 2012
Fikzio esperimentala
Ficción experimental / 24’20



Mendiz eta basoz betetako herrialde batean gizon gazte batek jada ez ditu bere zakurrak ezagutzen.

En un país lleno de montañas y bosques un joven hombre ya no reconoce a sus perros.

## LAST BREATH

### Ying Ping Mak

Erresuma Batua Reino Unido / 2013
Animazioa Animación / 07’57



Yeuk Sengek onartzen du gizarteko paria bilakatu dela. Amore emateari uko egin eta orain bere borroka jada berea ez den hirian bizitzea da.

Yeuk Seng comprende que se ha convertido en un paria de la sociedad. Negándose a abandonar, lucha por vivir en una ciudad a la que ya no pertenece.

## NADYA

### Jonathan Sanford, Mary Rasmussen

AEB EEUU / 2012
Fikzio esperimentala
Ficción experimental / 11’15



14 urteko neskato errusiar baten istorioa. Ekologikoki txikitua dagoen herrian bizi da, soilik emakumeak bizi diren leku batean. Biztanleen asmoa herria biziberritzea da. Horretarako geologo bati laguntza eskatuko diote, inguruaren maila toxikoa neurtu dezan, antzinako kobre fabrika berriz ireki dadin esperantzarekin.

La historia de una joven rusa de 14 años que vive en un entorno medioambientalmente devastado, donde solo viven mujeres. Las habitantes pretender hacer revivir el pueblo. Llaman a un geólogo para que mida los niveles de toxicidad, con la esperanza de que la antigua fábrida de cobre pueda reabrirse.

## THE DEVIL

### Jean-Gabriel Périot

Frantzia Francia / 2012
Dokumental esperimentala
Documental experimental / 07'00




Zuk ez dakizu nor garen.

Tú no sabes quiénes somos.

## NOL KING RUTER

### Noud Heerkens

Herbehereak Países Bajos / 2012
Fikzioa Ficción / 30'00



Nol King Ruterrek bere 65. urtebetetzea ospatzeko bazkari handi bat antolatu du familia, lagun eta lankideekin. Eguna ahaztezina izan dadin asmoarekin elkartu dira denak. Ospakizunak aurrera egin ahala antzinako gatazkak berragertu dira eta maitasun berriak azaleratu.

Nol King Ruter celebra su 65 cumpleaños organizando un gran banquete con su familia, amigos y colegas. Todos se reúnen con la intención de ofrecerle un día inolvidable. En el curso de la fiesta, reaparecen viejas rencillas y se tejen nuevos amores.

# MUD CRAB

## Igor Coric, Sheldon Lieberman

Australia / 2012
Animazioa Animación / 04’44



Spike-ek bere lehen lurreko karramarroa harrapatu berri du. Orain berak eta Daddak saskitik atera beharko dute behatz bat galdu gabe.

Spike acaba de atrapar su primer cangrejo de tierra. Ahora él y Dadda tendrán que sacarlo del cesto sin perder un dedo.

# EKKI MUKK

## Nicholas Abrahams

Erresuma Batua Reino Unido
2012 / Fikzio esperimentala
Ficción experimental / 10’30



Paisaia ingelesean barnako bidaia miragarria. Gizon batek hitz egiten dakien barraskiloa topatuko du eta honek etxerako bidea aurkitzen lagunduko dio.

Viaje mágico por el paisaje inglés donde un hombre se topará con un caracol que habla y que le ayudará a encontrar el camino de regreso a casa.

## LAY BARE

**Paul Bush**

Erresuma Batua Reino Unido
2012 / Animazio esperimentala
Animación experimental / 06’00



“Funtsik gabeko pertsonak dira besteak itxuragatik epaitzen ez dituzten bakarrak” idatzi zuen Oscar Wildek. Filma giza gorputzaren erretratu bat da, familiarekin edo maitaleekin ditugun harreman intimoenetan soilik ikusten diren alderdiak erakusten dituena: alderdi erotikoak eta komikoak; baita bere edertasuna eta hauskortasuna ere.

Según Oscar Wilde “la gente superficial es la única que no juzga a los demás por las apariencias”. La película es un retrato del cuerpo humano, visto desde un ángulo normalmente reservado a las relaciones más íntimas con nuestros familiares o amantes. Muestra sus aspectos eróticos y cómicos, tanto como su belleza y vulnerabilidad.

## SIZÍGIA*

**Luis Urbano**

Portugal / 2012
Fikzioa Ficción / 17’44



Udako denboraldia itxaroten duen bitartean, langile gogotsu batek olatudun igerilekua prestatzen du udatiarrak iristen direnerako.

Mientras espera a la apertura de la temporada veraniega, un trabajador entusiasta prepara la piscina de olas para la llegada de los veraneantes.

*Epaimahaiaren sari berezia
Premio especial del jurado

# MEN OF THE EARTH

## Andrew Kavanagh

Australia / 2012
Fikzioa Ficción / 09'50



Trafikoa geldirik dago bide bazterreko lanak direla eta. Baina zertan ari dira udal langileak? Topaketa pribilegiatu bat langileen erritual ilun eta sekretuarekin.

El tráfico está parado a causa de las obras en la carretera. Pero, ¿qué hacen los trabajadores municipales? Un encuentro privilegiado con un ritual obrero, sombrío y secreto.

# THE SEARCH FOR INSPIRATION GONE

## Ashley Briggs

Erresuma Batua Reino Unido
2012 / Fikzio esperimentala
Ficción experimental / 08'40



Poeta lorategi arrotz batean iratzartzen da. Bere koadernoa eta arkatza behar ditu.

Un poeta se despierta en un extraño jardín. Necesita su cuaderno y su lápiz.

# SONNTAG 3

## Jochen Kuhn

Alemania / 2012
Animazioa Animación / 14’00



Igandeetako irteerei buruzko serie baten hirugarren zatia. Protagonistak zita itsua du Kantzilerrarekin.

Tercera parte de una serie sobre los paseos de domingo. El protagonista tiene una cita a ciegas con la Canciller.

# LIZA, NAMO!

## Oksana Buraja

Lituania / Estonia / 2012
Dokumentala Documental / 27’15



Haur baten arimak ez du bere inguruarekin berradiskidetu nahi. Belaunaldi arteko arrakala bat dago Liza, neskato txikiaren, eta bere familiako helduen munduaren artean.

El alma de una niña no quiere reconciliarse con su entorno. Existe una brecha generacional entre esta pequeña niña, Liza, y el mundo de los adultos de su familia.

# THE CREATOR

## Al Holmes, Al Taylor

Erresuma Batua Reino Unido
2012 / Fikzio esperimentala
Ficción experimental / 39’50



Etorkizun batean, Pentsatzen duten Makinek euren jatorria eta zoria arakatzen dituzte, Alan Turing euren sortzailearen ametsetako egunerokoan. Terapian ari dela Turingek bere inkontzientearen sekretuak deskubritzen ditu eta horrek eramaten du Pentsatzen duen Makina eraikitzera.

Las Máquinas Pensantes del futuro investigan sobre sus orígenes y su destino, en el seno de los diarios de sueños de su creador, Alan Turing. Durante su terapia, Turing descubre los secretos de su mente inconsciente y ello lo lleva a construir las Máquinas Pensantes.

INFO+ #labo2013 • www.tabakalera.eu/labo2013


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

etxe pare

DONOSTIA 2016
SAN SEBASTIAN


TABAKALERA
donostiakultura.com
Sauve qui peut le court métrage
KIMUAK
EUSKADIKO FILMATEGIA
FILMOTECA VASCA